# JEURT!

Bertoko errebisti - 3. alea 1994.eko ekaina





# AURKIBIDEA

Irudia .......... 2
Editoriala .......... 3
Aurkibidea .......... 3
Hau da gauzi, ez ei da gasiki .......... 4
Prantzie kortekoa .......... 5
Txilugaz elkarrizketa .......... 6-7
Peru Londresen .......... 8
Deituren jatorriaz .......... 9
Gure herriko eskola .......... 10-11
Osasuna dala eta .......... 11
Elkarrizketa Burdingaikoekin .......... 12-13
Lasterketa ikusgarriak .......... 14
Eritziak .......... 15
Euskera ikastaroa martxan .......... 16
Marragea bizibide .......... 17
Nekazalturismoa .......... 18
Geu geutara .......... 19
Intxaurrondoa .......... 20



*Azala: Bernardino Madariaga*

Kontrazala: Intxaurpea
Argazkiak: Fidel
Maketazioa: Hilean Behin
Inprimategia: Grafilur

*JEURT!* Lea ibarreko Udalen Mankomunazgoaren diru laguntzaz

# Editoriala

**B**agatoz, bagatoz barriro be. Eta kontuak ondo badaroazuez gainera igarriko zenduen gero eta bizkorrago gabiltzela.

Hirugarren errebistea da honako hau. Guzurra badirudi be, eta ez dogu holakorik esaten aldizkari honetan, bi urte behar izan genduzan lehenengo JEURT! kaleratzeko. Bigarrenerako urtebete, eta hirugarren honetarako hilabete batzuk besterik ez.

Holan jarraitzeko zuen laguntza ezinbestekoa dogu, izan be, zeuek zarie errebista honetako protagonistak eta.

Kontu guztiak, lehengoak eta oraingoak, hangoak eta hemengoak batu eta zuenganatu gura ditugu. Hainbat orri zuri ditugu, eta horreek tintaz igurtzeko zuen proposamenen zain gagoz. Zeozer burutatzen bazatzu, gutariko edonorengana jotzea besterik ez dozu, eta izango dogu tartetxoren bat zuretzat be.

Zelanik hainbateri eskerrak emon behar deutsaguz gure itauneri erantzutearren, zuen eritziak emotearren eta kolaboratzaileen txokotxoan parte hartzearren.

Izan be, ez da Hollywoodeko izarra izan behar aldizkari honetan agertzeko, bestela begiratu egizu hurrengo orrialdeetan eta ikusiko dozu agertzen diran guztiak ingurukoak eta ezagunak dituzula. Gustokoa izango dozulakoan, besta batera arte!

**Jabi Onaindia.**



Beston Paris.

# Hau da Gauzi

# ...ez ei da gasik!

Aulestin, Aagiz auzoan gasa zegoela eta 1987 urtean gerorik izan dan arazoaz informazio zehatza bildu nahian, Aulestiko Udaletxera jo dogu, eta arazo honetan parte zuzena izan dabenekin egin dogu berba.

Berton Kontxi Mallea idazkariak hartu gaitu eta denporea pasatu barik, lehenengo pausoetatik gaurko egoerara arte azalpen zehatzak emon deuskuz, paper batzuk handiaren aurrean zabaldu eta paperok ondo ezagutzen dituenaren nasaitasunaz, ez baina hainbat urtetan eskribatuta egoana azalduz.

Hasiera 1987. urtean ipini behar dat markeldera Hispanoil-ek kanpaña sismikoa egiteko baimena eskatuz. Udalari eskabidea egin eutson.

## "Bermeo y cuatro más"

1987ko abuztuan, barruan "Bermeo y cuatro más" zereko proiektuaren barruan, "Aulestia-1" izenez ezagutzen dan putzuan zulaketa edo ikerketa egiteko baimena eskatu eban.

Udalak, aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, eta bertan emoten ziren azalpenak ez zirenez ez zehatzak, ez osoak ere ez, Bizkaiko Mehatzetako Barrutiengana jo eban, argibide eta jokabidearen nondik-norakoa argituko dabenaren beila. Horren erantzunak argi itzi eban ez dagoela arau honetako transkezantziak egiteko, ez dabela Eusko Herriak ezelako eskubiderik gai honetan, beraz, Industria eta Energia Ministerioaren esku izan behar ebela aurrak.

Zulaketa eta azterketaetan adituak ez diran edozeinentzat be harrigarri aurkezko presupostua eta lurra mila metroko zuloa egitea egin arren alkarregaz jost. Proiektu barruan ez zan zehazten ebea hareik ingurugiroan eginen eutsien eraginak, ez beraz zaintzeko hartuko ziren neurriak, ez zarpe eta horrelako eta behar ziren kolegio etatik pasata eta zelatuta... hau da, lamaina baretako obrak egiteko, bai ba bano dokumentazio zehatzetara eta legalizatu agiria behar zala eskatu eutsen Udalak.

Bitartean Hispanoil zana, orainezan Repsol, barruan ara joango da udal lizentzia eskabide bat (Repsol, EVE, Shell...).

Udalak eskabidea kontuan hartu eginen, eskatzaileari zelan behar ziren gitxieneko baldintzak azaldu eutsezan, hau da, proiektu zehatz eta basatua, ingurugiroaren zaintza aurrikusten dabena, "Actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas" dekretuen arabera egina, obraren ondorioak kontuan izango baiz kezka...

Eskabideetan desadostasuna ogerik?, Repsolek demandara jo eban.

Arazoa jurgaketatzen egoela, Aulestiko Udalak erabaki gartiz politikoaren ondorioz, eta batzorkideen gehiengoz, baimena ukatzea onartzen dau. 1988ko azaroaren hasieran 25ko Udal Batzar Apartekoan 1987 kalten bambat udalek erabagi honen aldeko adostasuna agertu eutsen Aulestiko udalari. Demandaren erabagiak 1992ko bagilaren 2an ematen dira eta bertan esaten zanak ondo biztanen. hatak udalaren jokaeraren zuzentasuna berresten eban, hau da, proiektuaren ezagarriak bete beharrak eta "Actividades insalubres..." dalako lehenago aipatutako legean bere ahetik aurrerazten zituen de mandan sartu zitzarenizat. Bestalde, udalaren akordu politikoaren indarrik eza adierazten eban, akordio horren gainetik legoz arte behar ipiten ebalarik.

## Batzorde jarraitzailea

Horraz, erabagiaren ondorioz, baimena eskuratzeko prozesuan aldeko hasitako eskatzen zan lizentzia emotea eta baita eurengo zitzen beharren jarraipenerako Batzorde Jarraitzailea. Batzorde Jarraitzaile hori 1993ko urtarrilaren 2an osatu zan, udaleko hiru ordezkarik eta Repsol eta gobernuaren aldetik beste birik osatuta. Batzorde honek zortzi batzar egin zituen lanak hasi eban denporan, esateko bilean behin eldu zan. Berorek hartu eban Aagiz ingurukoetarako eta zarata neurketak egiteko arduraz, bilatu eta ura analisiak eragiteko eta laneko urratzetan zehazten diren akordioak bete eragiteko ardurea. Akordioetarik batzuk hemen azalduko dituguz:

Udal herrena emoteraren ordainketa zortzi miloi, hamaregeita hamaika mila zortziehun eta hamahiru pezetatan ezarri zan.

Horrez gain, herriari ere onerako izango zan obra sozialen bat, hamabost miloiz osatzekoa eskaintzera ere konpromentitu zan Repsol, igaro egun diru horregaz Etxe Sozialazen obrak egiten dabiltzaz.

Ikerketarea emotza batezkoan izan ezkero, beste hamargeta hamar milioi gehiago, herri be hori aterateko obra ezinagarriren bat egiteko, emoteko baldea emon eban.

Ikerketaren emaitza arrakoa izan ezkero, Aagiz inguruan, eurek aztertu dabena, lehen egoan itzutzia izan be konpromentitu ziren.

Obra zulola 1992ko azaroaren jaza maiatz 26an hasi zan, zulaketa asko bete beraz dagon. 1993ko garagarrilaren (uztaila) 9an, 3.416 metroko zuloa egin ondoren, bidariek bertan behera iztea erabagi eban Repsolek, gasaren arrastoarik be ez ei dagoelata.

1995eko urtarrilaren 9an egin izan dau azken bilera Batzorde Jarraitzaileak. Aagiz paraje horrengan plaka aparta eta lehen egoan itzuztea izateko akordioa hartu zalarik bilera horretan.

Aulestiko Udaletxean espedientea mandal eta zeinzua artxibatuta dago.

M. Uoamuno Garate

Atal honetan, ahoz aho ikasiniko erromantze eta balada zaharrak nahi gendukez sartu, gustoko izango dituzuen esperantzan. Horretarako. guk batzuren batzuk jada grabatuak eduki arren, ondo egongo litzateke, zeuek dakizuezanen barri emotea, danon artean gure ahozko folklorearen bildumatxu bat egiteko aukerea izan dagigun.

Gaur hemen idazten ditugunak, Francisca Olaetxea 94 urteko munitibartarak kantatuak dira, eta berak kantatu zituen legez idazten ahalegindu gara.

# *Prantzie Kortekoa*

1.- Atzo eldu nitzan
Frantziko kortetik
ama topau neban
etxian bakarrik

2.- ser egiten desu iama
seuk olan tristerik
-nobedade barriak
entzun dittuaz nik

3.- se nobedade barri
entzun desu ama
-eskondu sariala
neure semia

4.- frantzes ala ingeles
seure emastia
-Frantziko kortekua
bai ama neuria

5.- estot biar prantzesik
ain gutxi errenik
deukodan obenia
kunplidu biot nik

6.- ser egingo deutzapa
bai ama neuria
-urten bidera eta
ill ene semia

7.- esta inposible
neuk ere egitia
ain eder galanta
neure emastia

8.- bata saitiut senarra
bestia koinetu
nundik nora
naroixuen
esaidesue klaru

9.- baja zaitte koineta
mandorren ganetik
sartun deitzudan
puñelau
biotzan erdittik

10.- puñela bai orren
sorrotzen sorrotza
ikusiaz beste barik
kentzen deust
bidxotza

11.- aitte bisi doda leges
bizi banuen ama
enendulela salduko
Espana urrunera


Franziska Olaeta, munitibartarra.

12.- aitak saldu ninduan
idi bat besela
kenduteko bisia
España urrunera

13.- sedorren
amagiñarraba
muskertxu berdia
subiak in aldeutso
arratzeko oya

14.- saspi isera dodaz
odoles beterik
sortzigarreatxu onek
naroie mundutik



Jesus Mari Zihuaga, "Txilu".

# Plazarik plaza

Jesus Mari Zihuaga "Txilu", Gernikan jaioa, eta orain Aulestin bizi dan ibarrangeluar hau, hainbat lekutan bizi izan da. 17 urte egin zituen arte Ibarrangelun bizi izan zen, baina harrezkero hainbat lekutan bizi izan da, adibidez Donostia, Bilbo, Galdakao, Mendexa, etb. Bizi modua aurrera ataratzeko plazarik plaza ibilten da erropa saltzen.

*Jeurt - Zergatik aukeratu zenduan Aulesti bizi izateko?*

**J.M. Zihuaga** - Bertoko jendea ezagutzen neBalako eta giro euskalduna dagoelako. Bestalde itxasoa be on doan dago eta mendiak be badagoz ingurean.

*- Asko kostu jatzun etxea topatzea?*

Ez. Arantzaren bitartez lortu neban. Barna inor ezagutu ezik gatxagoa izango zela uste dut. Lehenengo etxea ez jatan gustatu iluna zalako eta beste batera joan nintzen. Etxe hau ere erruzaorkik neban ze Aulestin egonda pertsona onaren fama hartu neban.

*- Noiz eta zelan hasi zinen plazarik plaza mobiduten?*

Oram lau urte. Aurretik beste hainbat gauzatan ibili nintzen, barnean, AEK-an, kaminoan, pixka bat denetarik. Itxasora be joan nintzen, baina urte bete egin da gero langabezian geratu nintzen. Orduan lagun bi batu ginen eta merkadilleetara joaten hasteaerabaki genduen. Langabezia kobratu eta Londresera joan ginen erropak erostera.

*- Bakarrik erropak saltzen dituzu?*

Bai inportaziako erropak. Sasoiar sasoikoak, neguan alkondara lodiak, txandarak, etb. eta udan algodoizko gauzak, kamisetak. Uda partean jendeak gehiago erosten dau, alaiago ibiltzen dira eguzkiagaz eta.

*- Horrela ibiltzea nekatsua izaten da, ez da hobe denda bat ipintzea?*

Nekatsua ez. Gu lagun bi ibiltzen gara eta geure ordu libreak be eukitzen dagoz. Gogorrena goizean jaikitzea da eta erropak aukeratzen Londresera joatea. Denda bat eukitzen genduan Lekeition baina han ordutegi bat bete behar da. Niretzat kalean giro hobea dago, bizitzeko beste era bat da. Nik euki dodan lanik onena da ze inok ez deust agintzen.

*- Zenbat ostera egiten dozuez Londresera?*

Lehenengotan biok joaten ginen eta urtean sei edo zazpi ostera egiten genduzan. Oraan aperbat ikasi dogu

lez bakoitza hiru-lau bider joaten gara.

- *Londresen nora joaten zarte erropa on?*

Almazen pila dago, ehun inguru. Erropak aukeratzea da lanik gatxena, baina denboraz ikasi egiten da zer saltzen dan eta zer ez.

- *Prezioak asko aldatzen dozuez almazenetik plazara?*

Gastuak kontuan hartzen badoguz, hau da hegazkina, erropak ekartzea eta abar, eskaintzen dan produktua nahiko merkea da. Ez doguz aldatzen asko prezioak, gastu honeek ordaindu eta geuretzat be zeozer ateratzeko beste.

- *Ze moda dator aurtengo udarako?*

Sekretoa da. Londresen arinago urtetenda[n] modak eta gero ona heltzen da.

- *Zelako jentea joaten da plazara?*

Udan danetarikoa. Neguan ehuneko 85a andrak izaten dira eta horregaitik eskaintza gehien bat eurei zuzenduta dago. Ernesteskoan mutilak bartu eta erosta egiten dabe. Neskak ikusi eta probatu egiten dabez jantziak.

- *Erregateorik egiten da?*

Batzuk egiten dabe. Gernikan geinera asko. Erregateoa egiteko be ere k daguz. Batzuk majuak dira eta beste batzuk ez hain atseginak.

- *Zuk ibiltzeko erropak saltzen dozun lanez?*

Ez. Baina inoz nik jantzita eroandako txamarraren prezioa galdetu deuste.

- *Zuk nun erosten dozuz erropak?*

Oraun soinean daukatan jertsea be alboko puestoan erosi neban. Normalean Londresen ez dot erosten niretzako erroparik.

- *Lanbide honetan luzaro jarraitzeko asmoa dozu?*

Bai, saltzen dogun bitartean bai.

- *Nondik nora ibiltzen zara?*

Gernikan, Ondarrun, Lekeition, Markinan, Elorrion, Oñatin, eta abar. Neguen danak hotzak eta udan danak beroak.

- *Hobbyrik badozu?*

Bai, rakuten musika entzun, mendira joan.

- *Asko erlazionatzen zarte beste saltzaileekin?*

Bai. Bertoko jendeagaz eta etorkinekin be bai. Alde horretatik polita da, kultura desberdinak ezagutzen dira. Hotza pasatu arren barrua berotzen da. Toki batzuetan jente zoratxoa dago. Erosleekin be harremanak egiten daguz.

- *Honetaz nahi dozu ezer geituago esan?*

Baaaa... Merkadiloan jente asko, arraza ezberdinetakoa ibiltzen da. Batzuk moroak, batzuk ijitoak, eta abar. Ĉina eta hemendik etorri leike erregateorako ohitura. Arrazakeria be badago. Merkadiloan dagaen gauza bat ona da, hezeroak berba txarto egin ezkero, zuk erantzun egin leikezula eta dendetan ez. Batzuk batzuk euskaraz egiten dabe eta jenteak sorpresa handia hartzen dau.



Ezilun esanetan sekretoa da oraindik aurtengo udarako moda.

**Josu Atxurra**
**M. Tere Bengoetxea**
**Amaia Onaindia**
**Jabier Onaindia**
**Anaje Urigüen**

# Peru Londresen



Peru, Marixe eta morroia bizi zirian alkarregaz, baina Marixe noznai egoten zan gaixorik. Sarritan eukiten eban nun, batian lepoko mina, bestian alboko mina eta bestian hankako edo nungo hangoa sarri. Baina joaten zan Peru Londresera silddun bedarrak ekarten, ze Marixeri hareek mesede handia egiten eutsen.

Ta egun batian esan eutsan morroiak Peruri ze:

-Ai, Peru, zu handik zarian arte, eztakizu asko hemen zelako erromeriak egiten dirian. Marixek janketa handiak emoten ditu hamen, auzoko lagun guztiak ekarrita. Hareek erabilten ditue pozak eta kantak!

-Zer dinostazu, morroia? -Bai, bai, bai egia da gero hori!

-Honako, honako konturik!. Ba egun baten egingo deutsat Marixeri agur, ta joan banaiz lez, alde biar dot bistatik. Baina hor egongo naz atostetxuan ta hamen zer jazoten dan.

Ta esan da izan, Egin eutsan Marixeri agur ta han geratu zan. Ta Marixek beti lantxerik ekarri zitun auzokuok, ta baita janketok eta erromeriok be bazirian han. Zer zan hango ijuxa ta zarata! Bai, ondo zaparradak ataraten zituen!.

*Peru guria Londresen*
*silddun-bedarrak ekarten.*
*Peru guria handik dan artian*
*guztiok olgau gaitezan*

Ta horixe kantiori amaituta batera, urten eban Peruk, ta baita berak be kantau.

*Neure krian txorixe*
*zeuk esan zeunstan egixe*
*arratsian ikusiko nebala*
*dantzan neure emazte Marixe.*
*Ai, oi ai egixe*
*zeuretzat*
*kortan daven zaldi zurixe.*

TERI IBARROLA: Cuentos Vascos, Columbia disketxea. SCGE80864



Neskato eskolatuak.

# Gure herriko eskola

**Hirurogeiko hamarkadan nire herriko eskolan eskolaratua izan nintzen. Orduko eskolak, (gelak), karezko hormak, egurrezko zorua eta pupitreak zituen. Aurrekaldean, tximinia ta guzti, burdinezko estufa batek berotzen zuen.**

Garai hartan gure eskualdeko herri guztietan, gutxienez, eskola bat zegoen, sarritan auzo eskolak ere martxan zeuden, Munitibarren, Aulestin...

Orduko eskolak premia eta hobetu beharreko gauza asko zeukan, baina ezin ukatu herriko dinamikan partaide zela, sasoi hartako herritar guztion oroitzapenetan azaltzen zaigunik. Onartu behar herriak eskaintzen duen aukera hamalau urte bitartean ikastekoa bazen ere, aukera mugatua zela. Seudo, batxilergoa edo beste ikasketa batzuk egin nahi zituena, herritik kanpora aldatera derrigortuta zegoela.

Egunerokoan eta beste batzu gainditzearren hirurogeitamarreko hamarkadan "LEY GENERAL DE EDUCACION" edo VILLAR PALASiren legea bezala ezagutu zen erreforma ezarri zitzaigun, irakaskuntza inguruko panorama zeharo aldatu zuena. Arro herri baten aurrean kokatu gintuztela aitortu behar eta ordurarte ezezagunak ziren hitzak, ohiturak, ikasten eta ikusten hasi ginen.

Herriko eskolaren sentsipenaz gain "kontzentrazio eskolak" indartuz eta azaleratuz joan ziren. Aldaketa sakonak ematen ziren arlo askotan, bala nola OINARRIZKO HEZIKETA OROKORRA (EGB siglaz hobeto ezagutzen duguna) martxan jarri zen, oinarrizkoa eta derrigorrezkoa izan nahi zuen hezkuntza ezarri zitzaigun. Neska-mutilen nahasketa agertu zen. GARRAIO ETA JANTOKI ESKOLARRAK instituzionalizatu zitzaizkigun eta ohitura batzuk barneratzen hasi ginen.

Hamarkada honetan benetako sarraskia eman zen herri txikietako eskoletan. Gure eskualdeari begira herri gehienetan gela kopurua gutxitu zen (eskolaurreko gelak bakarrik iraun zuen kasu askotan), beste batzuetan eskola desagertu zen, etab...

Nolabaitez beteriko hamarkada honen bukaeran ere herri txiken aurrean geundela argi zegoen. Egoera politikoaren aldaketa nabarmenarekin batera laurogeiko hamarkada heldu zitzaigun, eta honekin "berpizkunde" bat bizi izan genuela esan behar, eskola txikiei dagokienez behintzat. Astiro astiro herriko eskola indartuz joan zen eta antolamendu aldetik zein arlo pedagogikoetan aldaketa nabarmenak bizi izan genituen. Azpimarragarria da EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAREN lehen urratsak ematen hasi ginela eta herriko eskola txiki desberdinen lan bateratua, elkarrekin aurrera egiteko premiaren sentipena.

Laurogeitamarreko hamarkada beste erretorma baten oinarriekin dator. Ezin ahaztu aurreko legeak hogei urte bete dituela eta gaur egungo gizartean erantzuteko hezkuntza sistemaren berplanteamendu sakon baten beharrizana garbia dela.

Nire ustez, arazo handienetariko bat, bizi dugun krisi egoera da, eta garo horretan zerbait paratzeak, nahi ta nahi ez beste alor batzuren gutxitzea dakar.

Argi dago guzti honetan galtzailea GURE HERRIKO ESKOLA dela. Ikusten dugu nola kurtsoz-kurtso eta oraindik irauten dutenak "txikitzen" doazen (maila desberdinen gurdi-tzearekin). Beste batzu delegaritzak here planifikazioa egiterakoan desagertzearen mehatxupean bizi direla esan behar, urtez urte egoera honek dakarzan desoreakak, ziurtasun eza, plangintza bat aurrera ezin eramateak... duten ondorioekin, eta azkenez behe betiko txiki aurrean daukadenak eta egoera hori onartezina izatea.

Aztertu dugu ba azken lau hamarkada hauen historia txikitxoa. Nolabaiteko zikloak bizi ditugula esan genezake eta gure herriko eskolaren bizitza inguruaren baldintzapean garatzen dela. Herriko eta herritar garapenerako eskolaren partehartzea garrantzitsua da, herriak eta herritarrok gure inguruneen garatzeko ukatu ezin den eskubidea daukagula aitortu behar eta baita hori lortzeko beharrezko diren baliabide guztiak eskaintzeko ere. Hori horrela izan arte, ea ba hasten garen!.

**Gema Mendieta**

## OSASUNA DALA ETA

# Nutriente Ordezkaezinak

**Sendabedarren atal honetan, oraingoan, Joseba Badiola mediku naturistearengana jo dogu, osasunerako kontseiluren bat emon nahi baleuzku esanaz. Berak, fibra begetalaren inportantzia handia jenteak jakin beharrekoa izan leitekeela erantzun deusku. Ondorioz, horren inguruan informazio teknikoa emon deusku. Guk ondo aditu badogu, beren esanetatik urteten dau, berdura, zereal eta begetal guztien preminea daukagula.**

Izen honen barruan organismoak beste komposatu batzuetatik abiatuz sintesiza ezin dituenak sartzen dira, horrexegatik da preminazko kanpotik hartzea. Ondokoak dira:

Nahitaezko aminoazido
Oinarrizko gantz-azidoak
Bitamina eta mineralak
Ura
Fibra begetala

**Fibra begetala**

Zelulosa edo fibra begetala zurgatzen ez den karbohidrato klase berezia da; hau da, ez da pasatzen hesteetatik odolera, beraz, gorputzean sartzen dan fibra begetal guztia obramentuan botaten da.

Hesteetan eskoba bat balitz legez ibilten da eta toxinak zurgatzen ditu; eta berean, kolesterolerako bide diren behazun-azidoak eta beste sustantzia kaltegarriak ere batu egiten ditu.

Fibra begetala urarekin puztu egiten da eta hesteetako hondakinak oratzen ditu, eurok kolonean zehar egiten daben kanporako bukaerrez-tuz. Janaren bidez fibra begetal gitxi sartzen doguneean, obramentarako orea gogorra izan ohi da eta besteak ere hau kanpora botateko behar baino ahaleginak egin beharrean topetan dira. Behar gaitz hau egiteak sortu leikiguz arazo batzuk: euren artean hesteetan hertan dibertikoloak, hemorroideak eta koloneko minbizia.

Fibra begetal deitzen jakon hau begetaletan baino ez da aurkitzen; animalietatik datorren ezein janarik ez dauka. Horrexegaitik bada, energiarik emon ez arren, eta odolera pasatu ez arren, edozein gorputzentzat premiazkoa, nahitaezkoa da.



Jaime Malaxetxebarria.

# Burdinazko gazteak

- *Zelan erabaki zenduen enpresa hau muntatzea?*
- Rafa izan zan ideia euki ebana. (Eta Rafak azaldu euskun). Eibarren egiten neban lan, eta hara joaten be gogaituta nengoen. Lekeition Chillan tailerra zarratu eben eta gero neure buruan neban ideia hau gauzatzen Sabinek lagundu eustan. Harek esan eustan jendea topatzeko eta talde bat eratzeko, eta hori egin neban.

- *Noiz sortu zan?*
- Sortu.... 88ko urrian.

- *Nondik dator Burdingai izena?*
- Bai, burdinagaz lana egiten dogulako. Gure gaia burdina da. "Burdina marikoiek" (esan eban batek barre eginez).

- *Zein da zuen lana?*
- Ateak eta balkoiak egin, entreplantak .. burdinagaz zerikusia deuken guztia egin eta montatu. Lamparak mekanizatu be bai.

*Zemat sozio zarie?*
- Hiru bazkide.

- *Lan asko daukazue?*
- Bai, momentuz bai.

- *Krisiak badeuko eraginik hurduan?*
- Eukiko dau eragina, baina gu krisialdian urtendakoak gara.

- *Urtarrilaren 27an greba egin zenduen?*
- Bai.

- *Uste dozue greba horregaz ezer konpondu dabik?*
- Ez.

*Enpresariook deuken imagena mantentzen dozue, jantziak etb?*
- Bai egunero trajeagaz ibiltzen gara. (Irribarreak dagoz).

- *Urte honeetan euki dozue garapenik?*
- Bai, handitzen joan gara bai. Orain dagozan makinetatik ehuneko 70a lehenengotik genduan.

- *Tailer barruan egiten dozue bakarrik lana?*
- Ez, kanpoan eta barruan ibilten

gara. Txandaka egiten dogu, batzutan batzuk ibilten dira kanpotik eta beste batzutan beste batzuk. Deitzen deuskuen toki guztietara joaten gara.

*- Asko ligatzen da enpresarioa izan da?*
- Bufffffff...... Topera!

*- Obrero asko deukezue lantegian?*
- Obreroak, bi. Mitxel autentiku eta Alvarra gizaburutarra.

*Enpresario moduan, bakarrik agindu edo zeuek be lana egiten dozue?*
- Biak, agindu eta lana egin.

*- Bakarrik mutilak zagoze lanean?*
- Bai.

*- Zergatik?*
- Ba emakumerik etorri ez dalako, baina lan honetarako preparauta egon ezkero onartuko genduke. Gure aldetik prest gagoz, baina
- Bai.

*- Trampa fiskalik egiten dozue?*
- Orain arte ez.

*- Nikolas Redondo ala Ruiz Mateos?*
- Ruiz Mateos (diño batek). Biak saku baten sartuta be....

*- Zuei enpresa kendu ezkero, Supermanez jantziko zinakie?*
Bai, bai.


Jaime setazko traje eta gorbatarekin.

*- Ondo konpontzen zarie zeuen artean?*
- Bai, ondo. Enpresario eta obreroak barik lagun talde bat gara.

*- Ze ordutegi daukazue?*
Goizean 8retatik 13etara, eta arratsaldean 2:30etatik 7retara gutxi gorabehera, baina ez deukegu ordutegi fijorik.

*- Badaukazue anekdotarik kontatzeko?*
- Bai, baten Mitxeleri buzoak sua hartu eutson rotaflexagaz ebilela.

bigakin eta pisu askoko gauzakin ibili behar da.

*- Damutu jatzue inoiz ideia hau eukitea?*
- Ez.

*Ze egitasmo dozue etorkizunerako?*
Orain arte ibili garen moduan jarraitu eta hobetu

*- Gure errebista irakurtzen dozue?*
Baaaaaaaiii!

*- Errebistagaz porrua egiten badogu zuek lanik emango deuskuzue?*

*Ostia ezurrak sartzea edo parranda egitea dozue atseginago?*
- Biak.

*- Irakurtzekotan ekonomia ala pornografi aldizkariak?*
- Pornografia (esaten dau batek). Biak, (beste batek, hau ondo geratzeko izango da).

**Josu Alvarra.**
**M.Tere Bengoetxea.**
**Amaia Onaindia.**
**Jabi Onaindia.**
**Amaje Uriguen.**

# Lasterketa Ikusgarriak

Juan Anakabe Garro Asterrikako Anakabe baserritik Mendexara ezkondu zan, eta berri hau, esan deuskunez, beretan gogokoz dan. Juan Anakabe baserritar, azkargizon, pelotari afizionatu, ikazkin, sasialbaitari eta proba arria dogu baina burutu dituen lasterketa bereziak egin dabe ezaguna inguruotan.

Zelan burutazi jakon honelako lasterketak egitea galdetu deutsaguneanan, Mendexarako bileran, istorian zehar badagoela jente honelako desafioak burutzeko erantzun deusku.

*Orain arte Anakabek burututakoak:*

-1993garreneko maiatzean Mendexan, San Isidro ospakizunean, bere behor eta gurdiagaz sei korrikalariren kontra 2.800 metroko lasterketa.

1993garreneko San Mariai jaietan Amorotoko Zaldibarko Santi Blanco "Kurrin" txirrindulari ospetsuaren kontra 2.600 metroko lasterketa, txirrindulariak segundu bat kendu eutsolarik.



1993garreneko abuztuaren 1ean, Mendexan, Amorotoa ospatutakoaren ertzekotxa. Urreteta zubiko transformaderoan eta helmuga "Jaime" tabernaren aurrean.

Anakabek esan deuskunez , galdu arren oso harro eta satisfetxu dago "Kurrin" lako txirrindulari ospetsu baten aurka galtzeaz, bere helburua espektakulua sortzea da eta. "Txirrindulariak 14ko pinoian aldatzari aurre egiten badeutso ezinezkoa da behorrak irabaztea"

## "Linda"

Ezez antzematen da Anakabek benetan estimatzen dauala bere "Linda". Erosi ebanean salbajea zan, nerbio handikoa, baina memoria onekoa, hau garrantzizkoa da domatzeko ordean. "Berba onez kortadilua emon eta berba txarrez makila erakutsi", hau da domatzeko truko sinplea.

Babua eta pentsua emoten deutsoz jateko. Beharreak kanpo, zazpi kilometro eragiten deutsoz egun bitik behin lasterketarako entrenatzeko. Kontuan izatekoa da behor hau ez dala lasterketetarako apropósa, baina Anakabek domatu eta nahiz lasterketetarako nahiz probetarako prestatu dau, eta hor dago berezitasuna, honek espektakulua sortzen dau eta.

Lasterketetan erabiltzen daben gurdia etxerako atzerakoa da, eta exhibizioetarako egin deutseen lagun batzuk.

Etorkizunerako be badau Anakabek ideia ugaririk. San Isidro ospakizunetarako ikusgarria litzateke bere behorra txirrindulari eta korrikalari baten aurkako lasterketa batean. Gitxi gora-behera bi kilometrotan zehar, txirrindularia eta behorra batera hasi eta 800 metro egin ondoren, txirrindulariak korrikalariari testigoa pasatzen deutsolarik, hau helmugara heltzeko.

Gurdi eta gozoko zaldi eta behorren arteko lasterketa "kuatrotxelojean" be ez litzateke espektakulu makala izango.

Idi parejaren batek ondiño Mendexan kantauko ete daben susmoaz gelditu gara, "kerri hau ez da atzin gelditzeko eta".

Arantza Ugartebura

# ERITZIAK

**1- NUNGO PRESIDENTEA IZANGO ZINAKE?**
**2- ZER ALDATUKO ZENDUKE?**

### *GIZABURUAGA*

*1-Galdera: Nungoa?*
Erantzuna: Athletic-eko presidentea
*2-Galdera: Aldatu zer?*
Ba, errendimentu gitxi ataraten dabenari sueldoa jeitxi



Goio Okamika.
23 urte. Ikaslea.
Gizaburuaga.

### *AULESTI*

*1- Nungoa?*
Banaz, "Sasoi" alkartekoa.

*2- Aldatu zer?*
Diru poltsikotik



Arantza Arrien Goitiandia.
30 urte. Baserritarra.

### *MUNITIBAR*

*1- Nungoa?*
Inungoa bez; baina izatekotan multinazionaren batekoa.

*2- Aldatu zer?*
Kokoterairo nagoenez agintzaileekin, neu paratuko nintzake agintzen.



Rosamari Onaindia. 38 urte. Bulegaria

### *MENDEXA*



*1- Nungoa?*
Mutil zaharren soziedade bateku.

*2- Aldatu zer?*
Mutil zaharrak diru asko daukie eta gauza asko egin leikez, askoren egoera ekonomikoa aldatuko neuke, holan tortilik azpixen ze kolore daukon ikusiko leukie batzuk eta.

Jabier Guenaga Iturraspe. 47 urte.

### *AMOROTO*

*1- Nungoa?*
JEURT errebistaku.

*2- Aldatu zer?*
Galderak.



Manu Zabala 24 urte.

# UMEEK DINOSKUENA

## DANONTZAT DAGO LEKUA



Zure seme alabak, euskara etxean bertan ikasi dau, eta ikasiko dau neurri handi batean, zuokin, guraso eta aitite-amonakin.
Holan izan da Euskal Herrian gizaldiz gizaldi, eta horrexegatik dago euskara bizirik!
Hala be, gaur egun, euskara ahoz erabiltzea ezinbestekoa badogu be, ez da nahikoa. Eta hemen, la gehienok euskara jakin arren, edozer gauza, baita sinpleena be, irakurri eta idatzi behar doguneam ahal bada gaztelerara jotzen dogu.
Herrian, gero eta gehiago gara, arazo honegaz amaitu behar dugula pentsatzen doganok. Izan be, gazte denboran ez gendoan beste aukerarik izan.

Baina gaur, gazteleraz idazten dakien euskaldun batentzat ez dago gauza errazagorik euskaraz ondo irakurri eta idatzi lortzea baino. Borondate kontua baino besterik ez da!
Gainera, euskaraz trebetzeak sekulako poza emongo deusku; seme-alabak eta lobak eskolako ikasketetan laguntzeko gauza izango gara ta. Bihotzez eskertuko deuskue gure ahalegina ze, eguneroko jardunetan euskara ondo menperatzea, bai kalean zein beharrerako preminetan gero eta garrantzitsuagoa, da eta.

Arrazoi askorengatik, udaletxeko agintariek be euskaraz funtzionatzeko konpromezua hartu dabe. Baina batez be, euskaldunak direlako eta euskaraz bizi gura dabelako...

**EZ DOZU USTE ZURE EUSKARA HOBETZEAK MEREZI DABENIK?**
**HORRELA USTE BADUZU, ORAIN DOZU ZURE AUKERA.**
**GURASO ETA HELDUENTZAT BAKARRIK. EUSKARA HOBETZEKO HIRU HILABETEKO IKASTARO SIMPLEA. NORBERAK DAUKAN MAILAREN ARABERA, ERRAZA ETA GUSTOKOA!**

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI EZKERO ESKATU UDALETXEAN.**

ANTOLATZAILEAK: UDALA ESKOLA UEMA

LAGUNTZAILEAK: BIZKAIKO aek E.H.E.

**Oraingoan marragea eta marragearan kontuak zuengana hurreratzea pentsatu dogu. Kaltza marragearen beraren preminea gitxituz joan dan ginoan galdu da ardi lanearen lanketa. Halan da guztiz be, badira ondino gaur egun artisau behartzat dagoen hau, euren etxeetarako zein kanporako egiten dabenak.**

# Marragera

Ga, Bernardina Madariagagana joan gara, nahiz eta ez dan bera marragera bakarra. Aulestan berton zenbat legez eta egozan galdetu deutsegunean hasi da kontetan eta ia dozena eidi kalean berton kontatu dita. Gaur be ondino hiruren bat badagoz eta Bilbotik etorten ei jake eskabidea. Oran zala eta hiruretan pezeta ordaintzen ei deutse kaltza parekoa ez dakiguna. Bilbon zema tean saltzen dituen.

Bernardinak dinoskunez, 1936-39 gerra ostean bizimodua aurrera ataratzeko baliabideen izan zan ardilanearena. Baserrietatik lanea kalera dendarei ekarten ei eutseen eta berak gogoan dauka zelan Etxanoko dendara joaten ziren, han zortzi edo hamar kilo lana hartu eta hiru edo lau kaltza pare eginda eroan ezkero dendariri. Josefina Ibarrola zana aitatu deusku orduko dendari, handik gora ataraten ziren kaltzak, beste hiru bat pare edo geiatxoago, norberarentzat izaten ei ziren.

Ataraten ziren kaltza pareokin eroan dendara eta etxerako generoa ekarten ei eban: janaria gehien bat baina, inoiz jantziren bat be bai; ondo gogoan dauka behinipehin gona marroia eta jake beltza egiteko ohiala be hotamaxik erosi zituena baten. Dirurik ezean, trukea.

Berak dinoskunez, eurek ardilana kapatik hasi eta kaltzamarragearen behaz puntara artekoa egiten eben, beste batzuk harea egin eta saltzen eben. Ei ziren haria ereosi eta kaltzea bakarrik egiten ebenak be. Danadala, gehien izten ebana dana egitea ei zan: pentsatu leiteken moduan, gitxiago irabazten ei zan haria bakarrik eginda.

Bernardina eta bere ahizteari amak erakutsi ei eutseen goruan haria egiten, eta halan egiten ei eban lehenengoran baina gero, ugaritxoago ataraa nahian edo tornuan haria egiten ikastea pentsatu eta, nork eta! Gergoritxu Zabalenekoak erakutsi ei eutseen tornua erabilten.



Iruten ari nintzela, ene zelan jarrenk...

Tornuan egindako haria apurtxoagoa izaten dala azaldu deusku, eta kaltzeak be hainbeste bigun barik urteten dabela. Goruan egindakoa barriz, beti hari bigurtxoagoa izaten dala eta horixegaitik kaltzeak estuago urteten dabela.

Ordoan bala, kapea lehenengo ta behin garbitu egin behar da, dauka zan lohi guztiak kendu ahalik eta kolore onena izan dagian: ondoren eskuz, hatzamarrekin izpitu; behin izpitu ta gero gardatu egin behar da anakoetan hartuta ipinteko lanea: gardatzea orraztzearen antzerako beharra da. Aurreku luzangea izaten da tornura zein gorura eroaten dana. Handik jada hari eginda andatzean batu dana, txirrikara ernateko. Txirrikatik, azkenik harilak hatzen dira eta honexekin eta kaltzetorratzekin egiten da kaltzea.

Izan leiteke ikusi barik hainerreza ez izatea beharkuntza gaztia zalitzea, baina halan da be nahi izan dogu herotzea batri Jeni! herioko erreboista lunen orrietan emotea.

M. Unamuno Garate

# Nekazalturismorako etxea Gizaburuagan

Gure eskualdeko herri gehienetan badira etxe batzuk nekazal turismorako direnak. Gaurkoan Gizaburuagara jo dogu. Akuiola baserrira hain zuzen, honetaz zerbait kontatzeko asmotan.

Bertakoak dinoskue zelan orain dela lau urte ta erdi hasi ziren gai honetan. Euren helburua, laguntza ekonomiko baten truke, baserria mantentzea. Hau da, gaur egun baserri hutsetik bizimodua ataratzea oso gatxa da, orduan lanbide mistora jotzen da eta modu bat da jendeak izaun dezan gure baserri eta herri txikietan. 1991an hasi zan martxan. Eskualde mailan lehena eta Euskalherrian lehenetarikoa.

Dinoskuen legez gazte jendea dabil etortzeko asmotan eta horrela gertatzen ei da.

Jenderik gehiena uri handietatik dator, bereziki Bilbo eta Donostia aldetik. Baita atzerritik ere heltzen ei dira banakaren batzuk uda aldean.

Lehen esan dodan lez, gaztea da gehien bat datorrena. Baita ei dira batzuk errepikatzen dabenak. Honek esan nahi dau gustora egoten dala honako tokietan.

Hona datorren jendea, lasai egotera dator. Era honetako turismoa egitea lasai ibiltea da, jende artean ibili beharrik gabe, etxeko bizitza egitez, nekazal-mundua eta natura orokorki ikusiz.

Etxe honetara jotzea nahiko erreza da. Turismo bulegoetan daukate informazioa non eta zer eskeintzen daben bakoitzak. Uda izaten da jenderik gehien dabilena. Sasoi honetan nahiko jende etortzen ei da, aste santuan ere bai, baina neguan oso gitxi.

Akuiolak bost logela bikoitz eta beste txiki bat dauka, bainu bi, egongela bat eta sukaldea. Guzti hau etxeak eskeintzen dabena, gero, ingurugiroa, mendira ibilbideak eta herri txiki eta baserri giroa ezagutzea ere hor dagoz.

**Jesus Mari**



Gizaburuagako Akuiola baserri etxea.

## AMOROTO

**JAIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Anton GABIOLA IDOJAGARRETA | 1992-07-11 |
| Gurutz ARRAGA GOITIANDIA | 1992-11-11 |
| Egoitz ELORRIAGA GASTIARRETXEA | 1992-05-29 |
| Jon IMAZ GABIOLA | 1992-07-21 |

**HERIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Julian ETXEPARE VALDES | 1992-12-22 |
| Eusebio URRUTIBEASKOA ANAKABE | 1993-01-02 |
| Bruno ARRIAGA MARKUERRIAGA | 1993-03-31 |
| Juan ARRIOLA BOLLAR | 1993-04-04 |
| Jose Luis GABIOLA GOENOLA | 1993-07-25 |

## AULESTI

**JAIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Maitane ANSOTEGI UEKOLA | 1992-11-22 |
| Aintzane LARUNBE GARDAGA | 1992-11-22 |
| Francisco Javier IFIÑA MALAXETXEBARRIA | 1993-03-18 |
| Asier LEKUONA GOIKOETXEA | 1993-10-30 |

**HERIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Felix GORRIÑA ZARRABEITIA | 1992-11-05 |
| Mª Teresa INTXAUSTI ETXABE | 1992-11-17 |
| Jacinta ONAINDIA OYANONDIA | 1992-11-29 |
| Joaquin PLAZA KORTABITARTE | 1992-12-30 |
| Juana MALAXETXEBARRIA MENDIOLEA | 1993-01-09 |
| Juan ONAINDIA ARANGOLO | 1993-01-14 |
| Francisco URIGUEN ARANA | 1993-03-14 |
| Juan INTXAUSTI MALAXETXEBARRIA | 1993-05-02 |
| Maria GABIOLA ONAINDIA | 1993-05-28 |
| Tomas UNAMUNO ARRIAGA | 1993-06-11 |
| Javier BENGOA IBINARRETXEA | 1993-08-10 |
| Agustina UGARTE ONAINDIA | 1993-09-20 |

## GIZABURUAGA

**JAIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Ahoro ZUBILLAGA UNANUE | 1992-12-21 |

## MENDEXA

**JAIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Axel GALLEPEREKETA GOIKOABE TIA | 1992-08-15 |
| Mikel SANSEBASTIAN ABOITIZ | 1993-02-18 |
| Joseba URKIZA ASTORKIA | 1993-04-09 |

**HERIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Jose Maria UGARTEBURU ITURBE | 1992-08-21 |
| Francisco GURPASPE ZULAIKA | 1992-10-03 |
| Santiago QUINCOCES LASKIBAR DE GUEVARA | 1992-10-24 |
| Maria AZARREGI LARRIAGA | 1992-11-10 |
| Fermin PLAZA KALZAKORTA | 1993-01-12 |
| Jose PLAZA ATXURRA | 1993-01-28 |
| Maria ITUARTE ZENDOIA | 1993-04-21 |
| Mª Teresa LAKA KORTABITARTE | 1993-06-10 |
| Charles Paul GUY NICHOLSON LARRABETI | 1993-07-22 |
| Brigida ASPIAZU PLAZA | 1993-08-11 |
| Maria ARRASTEGI MENDIGUREN | 1993-08-25 |

## MUNITIBAR

**JAIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Asier BUSAD MALLEA | 1992-08-28 |
| Nerea ONAINDIA FERNANDEZ | 1992-10-22 |
| Andoni IRUSTA HACES | 1993-05-02 |
| Eduardo ZENGOTITABENGOA ARMENDOLEA | 1993-06-16 |
| Maria LAURIOLA MARTINEZ | 1993-05-16 |

**HERIOTZAK**

| | |
|---|---|
| Juana Maria IRUSTA AJURIAGOJEASKOA | 1992-08-24 |
| Simone MANTEROLA GARATE | 1992-09-07 |
| Maria REMENTERIA UTXEBARRIETA | 1992-12-10 |
| Maria ATXALANDABASO MARTITEGI | 1993-03-29 |
| Luis MENDIBE ZENGOTITABENGOA | 1993-03-30 |
| Jose Luis ARANDABURU URRESTI | 1993-03-?? |
| Francisco Javier UBERUAGA TOTORIKAGUENA | 1993-04-13 |
| Domingo BILBAO BILBAO | 1993-04-18 |
| Ricardo ERRAZUMA URIBE | 1993-04-10 |
| Mª Carmen GERRIKAGOITIA GERRIKABEITIA | 1993-10-05 |
| Olga ARRATE ARMAOLEA | 1993-11-11 |
| Maria GERRIKAGOITIA ATXABERANDIKO | 1993-11-23 |















# Intxaurrondoa

ea: *Juglans regia.*
rondo arrunta

ko eremua: Pertsia eta Europako hego-
oa da jatorriz, baina aintzinatean sartu
n Europan.

ien egitura: Azaleko sustraiak ditu, bai-
era handia hartzen dutenak.

a: Ez da arbola handia izaten, gehiene-
tu 20 m.tik gora hartzen, inoiz 24 metro-
ksatzen bada ere.

: Lur sakon, emankor, irazkor eta ha-
bizi da.

: Intxaurrondoak beroa eskatzen du bere

* Biziraupena: Luzaz bizi den zuhaitza da.

* Hazkundea: Urteko 2,5 edo 3 zm. hazi daiteke gerri bueltan eta urteko eta hektareako 1-3,5 m.ko produkzio eman dezake.

* Basogintza: Azaroaren azkenetan, abenduaren hasieran edo, bestela, udaberrian kimu berriak erne orduko, landatu daiteke. Batez ere haizeak jotzen dituen lur biluzi edo soiletan landatuko da, hartarako, urte bete edo bi lehenago sustrai-ileak moztuta dituzten 3 urteko landareak sartuko direlarik, hektareako 100 (10x10). Lehenengo bi edo hiru urteetan nahikoa da landareen inguruko lurra jorratzea, ez da beharrezkoa arlo osoa jorra-tzea eta. Hainbat alditan inausiko da zuraren kalitatea hobetzeko.